

HEZKUNTZA EGITASMOAK

Hezkuntza Zerbitzuei
aurkezpen-ekitaldia

Gasteizen, 2013ko maiatzaren 6an

✓ Eleaniztasunerantz

✓ Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi

✓ Sarezkuntza

✓ Konpetentziak eta curriculumaren euskal
dimentsioa

✓ Praktika onen bidetik bikaintasunerantz

Hezkuntzako egitasmoak

Hezkuntza
Zerbitzuei
aurkezpen-ekitaldia

2013ko maiatzaren 6an

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

2013ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Jaun andreak, egun on!

Ongi etorri, Hezkuntzako Egistasmo Nagusien aurkezpena egiteko Sailak antolatu duen ekitaldi honetara etorri zareten hezkuntza zerbitzuetako kide guztiei...

Ongi etorri, beraz, Berritzegune Nagusiko eta eskualdeetako aholkulariei, ongi etorri, Ikuskaritzako lankide guztiei, ongi etorri, ISEI-IVEIko kideei eta ongi etorri, IRALEko, CRiko, Ingurugeletako eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza arretarako zentroen zuzendari...

Eskerrik asko, denoi.

Aurrena, mahaikideak aurkeztu nahi dizkizuet:

- Mahaiburu, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua, Cristina Uriarte Toledo andrea.
- Sailburuaren eskuman, Olatz Garamendi Landa andrea, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea.
- Eta ezkerrean, Hezkuntzako Sailburuordea den Arantza Aurrekoetxea Bilbao andrea.

Gurekin batera daude baita, behean eserita, Ikastetxeen Zuzendaria den Jesús Fernández Ibáñez jauna, ISEI-IVEIko zuzendaria, Xabier Aizpurua Telleria jauna, eta, Ikuskari Nagusia den Jose Antonio Romero Escobedo jauna.

Azkenez, ni neu, Begoña Garamendi Ibarra, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria.

Jaun andreok, Hezkuntza Zerbitzuetako zuetariko zenbaiten galdera eta ekarpenak jaso izan ditugu azken asteotan. Horregatik, gaurko aurkezpen honen xedea zuengandik jasotako kezka eta ekarpenak elkarrekin partekatzea ere bada. Gaurkoa, hortaz, euskal hezkuntza sistema osatzen dugun zerbitzu eta gizabaliabide guztion ezagutza partekatu hori baliatzeko saioa izango da.

Badakigu, hau ez dela unea egitasmo bakoitzaren zehaztasunak adierazteko, foro honetan hezkuntza zerbitzu desberdinetako profesionalak gaudenez ezingo genuke zerbitzu bakoitzeko ñabarduretan sartu. Edonola ere ikasturte hasierako ebazpena erabiliko dugu hemen zaudeten zerbitzuok proposatu dituzuen zehaztapenak argitzeko. Horrezaz gainera, esan nahi dugu, talde honek badituela eta osatzen ari dela lau urteari begirako jarduerak eta irizpideak ere.

Begoña Garamendi Ibarra
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria

1. Zer zeregin izan behar dute hezkuntza-zerbitzuek euskal hezkuntza sistemaren berriztapenean?

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua

Egun on, jaun andreok; egun on, lankideok.

Zenbait irizpide azalduko dizuet, geure jardunean, egitasmo oro bideratzerakoan, aintzat izan nahiko genituzkeenak, hezkuntza-zerbitzuon laguntza estimagarriarekin, noski.

Lehen irizpidea ikaslea da. Ikaslea da hezkuntzaren ardatza edo helburu nagusia. Horregatik, ikasleen aukera berdintasuna bermatu nahi dugu, dibertsitatea egoki kudeatuz, gaitasun desberdinak eta aniztasun sozial eta ekonomikoak ondo kudeatuz, era berean, bikaintasunerantz etengabe urratsak eginez.

Bigarren irizpidea etengabeko hobekuntza da, helburu lorgarrietatik goragoko helburuetara jotzeko asmoz. Hezkuntza eta ikaskuntza, gizarteak eta gizabanakoek burutzen duten prozesu luzeak dira, eta horregatik, nahitaez, ikerketetan oinarritutako etengabeko aldaketen bidez kudeatu beharrekoak dira. Lehendabizi helburu lorgarriak jarri eta, arian-arian eta etengabe, goragoko helburuetara jotzeko asmoa dugu, dugunarekin konformatzen ez garelako, etengabeko hobekuntzan sinisten dugulako.

Hirugarren irizpidea ebaluazioaren kultura barneratu eta zabaltzea da. Geure buruaren ebaluazioaren kultura hedatzea, geure jardunaren ebaluazioa egitea, geure ezintasunak eta geure ahalmenak zeintzuk diren jakinik, eskolak dituen mugez jabetuta, etengabe hobetzen joateko: zer gehiago egin dezake irakasleak? zer gehiago egin dezake zuzendaritza taldeak? zer gehiago egin dezake aholkulariak? eta ikuskariak? eta administrazioko edozein zerbitzuko? zer egin dezake eskolak? zeintzuk dira eskolaren mugak? . Galdera guztiz apropos eta praktikoak.

Laugarren irizpidea elkarlana da, hezkuntza elkarlanaren emaitza delako. Eskolak berak bakarrik ezin du. Guk geuk bakarrik ezin dugu. Talde-lana eta sare-lana beharrezkoak dira, praktika eredugarriak partekatzeke, arazoak konpontzeko, ikasleen artean, irakasleen artean, zuzendaritza-taldeetan, ikastetxeen artean; indarrak batzeko, hezkuntza-sareen artean, erakundeen artean; edota adostasunak bilatzeko, legebiltzar-taldeetan.

Bosgarren irizpidea, berriz, gurasoen borondatea da. Gurasoen borondatea kontuan izan nahi dugu, beti ere ikasleen eskubideen gainetik jartzen ez bada. Jakina baita gurasoek ikasleen hobe beharra baino ez dutela nahi izaten, eta horren alde irakasleekin batera lan egiteko prest egoten direla beti. Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa dugu gurasoen ekarpenak eta eskaerak kontuan hartzea.

Seigarren irizpidea, azkenez, eraginkortasuna. Europar Batasuneko 2020 estrategiarekin bat eginez, giza eta diru baliabideak, zein baliabide materialak, modu eraginkorren erabili gura ditugu. Adierazle-sistema osatu egingo dugu, besteak beste, baliabideon erabilera ere neurtu ahal izateko. Baliabideen erabilera eraginkorra kontuan izango da, egitasmo eta prozesu guztietan.

2. Zein norabidetan bideratu behar dira berriztatze ekimenak?

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua

Hezkuntza-administrazioko kide garen guztioi komeni zaigu Europako Batzordeak epe ertain eta luzera aurreikusten dituen lehentasunak aintzat hartzea. Horren harira dator, besteak beste, argitaratu berri duen txostena: *“Un nuevo concepto de educación: invertir en las competencias para lograr mejores resultados sociales, además de económicos”*. Gaitasunetan eragiteko honako lehentasunak markatzen dira bertan, hala nola:

1. Derrigorrezko hezkuntzan eta Lanbide Heziketan bikaintasunaren alde lan egitea, testuinguruko beste hainbat eragilerekin elkarlanean eta soluzioak sareetan aurkituz.
2. Ikasketa prozesutik kanpo gelditzeko edota gutxiengo gaitasunak ez lortzeko arriskuan dauden ikasleen emaitzak hobetzea, Elkarbizitza eta Aniztasuna behar bezala kudeatuz.
3. Ikasleen gaitasunetan zuzenki eragitea: oinarrizko gaitasunetan, eta ikasketekin hasiez batera, baita zeharkako gaitasunetan ere; hala nola, gaitasun ekintzailea, gaitasun digitalak eta gaitasun eleanitzak.
4. Ikasle bakoitzaren ezaugarrietara eta bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukerak garatzea, biztanleria osoak gutxiengo gaitasunak lor ditzan.
5. IKTen eta ikasteko baliabide irekien erabilera bultzatzea.
6. Eta, azkenez, hezkuntzari lotutako langileen perfilak aztertu eta zehaztea, honako irizpideen arabera: eraginkortasuna, kalitatea eta etengabeko prestakuntza.

3. Zeintzuk izango dira Hezkuntza Zerbitzuek bultzatu beharreko lan ildo nagusiak?

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntzako Sailburuordea

Urteotan lan-ildo kontzeptuak edukiari egin izan dio erreferentzia. Burura datorrit, urtero edo epeka, argitaratu diren lehentasunezko lan ildoen txosten eta liburuak. Antzeko zerbaiten zai egon zaitezke zuetariko batzuk, eta hala da, hezkuntza.net orrialdean jarriko ditugu egitasmo guztiak eta txosten guztiak. Gaurkoan, aldiz, egitasmo edo lan-ildo nagusiak ekarri gura izan ditugu.

Lan-ildo bakoitza xehe-xehe azal daiteke bestalde; oraingoan, aldiz, ikuspegi oso, egituratu eta koherentea azaltzea lehenetsi dugu. Komunikazioari eman diogu garrantzia, beraz; informazio zehatza – ekintza zehatzak eta egutegia barne-, egitasmo bakoitzaz aurrerantzean egingo diren saioetarako utzi ditugu.

Aurretik doakizue, ikastetxeek orain arte ondo edota ezin hobeto egin duten lana aintzat izango dugula. Ikasle bakoitzaren eta guztien eskubideak bermatuko ditugu, eta ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatearen ezaugarrietara egokitutako tokian tokiko premia eta erritmoetara egokitutako plangintzak erraztuko ditugu, ikaslearen heziketa integrala baita plan edo interbentzio horien gidari.

Horrenbestez, hona hemen gure talde honek esku artean dituen egitasmo nagusiak:

1. **"Eleaniztasunerantz" egitasmoa**
2. **Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasteko egitasmoa.**
3. **Teknologiak "ikasteko" erabiltzeko, Sarezkuntza egitasmoa.**
4. **Oinarrizko kompetentziak eta curriculumaren euskal dimentsioa garatzeko egitasmoa.**
5. **Praktika egokien bidetik bikaintasunerantz egitasmoa.**

Eleaniztasunerantz

Esan bezala, batetik, **Eleaniztasunerantz** egitasmoa lantzen ari gara. Gure ustetan, indarreko hizkuntza erduei esker, hezkuntza euskalduntzeko prozesua guztiz positiboa izan da, bai euskararen berreskurapenerako, bai gizarte kohesiorako. Hobetu daiteke, hala ere, hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan ikasleek duten gaitasun-maila, ikasle eleanitzak nahi baititugu.

Horretarako, eleaniztasunerantz urrats sendoak egingo ditugu, ingelesaren aldeko apustu argi eta garbia eginez. Egungo sistemak

ematen dituen emaitzak baino hainbat hobeak eskuratzeko ziurtasuna eskaini behar dugu. Horregatik, hizkuntza-gaitasunen hobekuntzan "eskolaren eragina"z gain, faktore guzti-guztiak aintzat izango ditugu.

Ikasle eleanitzak nahi ditugunez gero, ikasleen hizkuntza-aukera berdintasuna eta hizkuntzen arteko elkarbizitza bermatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren apustua sendoa da.

Europako helburuak aintzat harturik, hots, Europako edozein hiritarrek ama-hizkuntzaz gain beste bi hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna, eta Euskadiko hizkuntzak bi direla kontuan izanik, gure helburua "2 gehi 2" izan behar da, hau da, euskara eta gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bi. Horretarako, berriz, urratsez urrats joango gara, helburu zehatz bezain lorgarriak jarritz, arian-arian lortuz joan daitezten.

Eleaniztasunaren erronkari aurre egin nahi diogu, hau da, ikasleek hizkuntza komunikazio-gaitasuna eta hizkuntza-trebetasunak bi hizkuntzan baino gehiagotan lor ditzaten.

Elebitasunaren aldeko 1992ko apustu hura berretsi eta zabaltzen saiatuko gara. Mundura irekita dagoen gizartea eraikitzen lagundu nahi dugu; ikasleen mugikortasuna errazteko, mundu zabalean ikasteko, lan egiteko edota bizitzeko dagokion hizkuntza-gaitasuna eskuratzeko nahi dugulako; gero eta globalagoa den gizarte honetan, gelaz kanpo ere, sarean ikasteko (Sarezkuntza), dagokion hizkuntza-gaitasuna izatea nahi dugulako.

Seme-alaben ikasteko hizkuntza aukeratzeko eskubidea defenditzen dugu. Eskubide hori ez da bat eta bakarra hizkuntza kontuetan; badu mugarik eskubide horrek: ikasleek hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa nahiko bermatzea, alegia. Horregatik, atzerriko hizkuntza baten edo gehiagotan irakastea sistema osora zabaltzeko baldintza egokiak bultzatuko ditugu, sistema eleanitza eratu eta zabaltzeko.

Orain arteko esperientziak aztertzen ari gara, besteak beste, Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperientzia: lehenengo txandako ikastetxeen esperientziaren ebaluazioa 2013ko abendurako prest egongo da; bigarren txandako ikastetxeena, berriz, 2014ko abendurako.

Era berean, testuinguru eleanitz batean ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetze aldera eskolak egin beharreko ekarpena zehazte lanetan ari gara, eta bai ekarpen hori egiteko beharrezkoak diren baldintzak definitzen ere.

Luze gabe aurkeztuko dugu proposamen zehatza.

Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi

Bestetik, **aniztasunean elkarrekin bizitzen** eskolak egin dezakeen ekarpena areagotu egin nahi dugu. Balioetan oinarritzen den hezkuntza sistema eraiki nahi dugu. Horretarako, aniztasunaren aberastasuna nabarmendu, eta elkarrekin bizitzen ikasteko eskolak egin dezakeen

ekarpena areagotzeko modukoa dela uste dugu. Horregatik, besteak beste:

- Aniztasunari erantzuteko neurri, proiektu zein deialdietan, inklusibotasuna sustatuko dugu.
- Hezkuntza Laguntza Beharrian Espezifikoei erantzuteko araudia gaurkotu eta garatuko dugu.
- Sare-lana indartuko dugu, interbentzio-maila desberdinetan eta erakunde eta gizarte eragileen artean, eta
- Ikastetxearen Urteko Planen bidez, elkarbizitzari eragingo diogu.

Sarezkuntza

Teknologiak “ikasteko” erabiltzeko, **Sarezkuntza** egitasmoan ere murgildu gara.

- Gero Olatz Garamendik zehatzago adieraziko dizueenez, “Sarezkuntza” deritzon garai berri baten diseinuan gabilitza, elkarlanean dihardugu hemen gauden hainbat talderekin eta hemendik kanpokoekin ere.
- Kudeaketa eta ikasketari lotutako giza baliabideak eta materialak biltzen eta elkarrekin partekatzen hasiak gara, dagoeneko.
- Hezkuntza digitalak, aurreko hiru hamarkadetan, metatu duen ezagutza guztiaz probestu nahi dugu. Hau da, irakasleek eta hemen zaudeten laguntza zerbitzuetaoek egin duzuen hobekuntza aipagarria aintzat hartuta.
- Argi dugu, informatikako gelatik gela digitalera eraman gaituen aldaketa-prozesuan, zuekin batera, eragile izan nahi dugu.

Oinarrizko kompetentziak eta curriculumaren euskal dimentsioa

Aldi batetik, **curriculum**a **garatzen** jarraitu beharra daukagu, oinarrizko zortzi gaitasunak maila guztietan indartzeko eta ikasgelaratzeko.

Egia da, bestalde, ikasleek eskolan eskuratu beharreko ezagutza, trebetasun eta jarrera guztien multzo osoaren parte baten dimentsioari forma ematea, geure esku dagoela. Erkidegoaren eskumenak erabiliz, aukera dugu, besteak beste, gure lehengo eta oraingo ezaugarri soziokultural, ekonotekniko, soziolinguistiko eta politiko-instituzionalen berri emateko, edota etxeko hizkuntzaren errejistro landura hurbiltzeko, edo gure herri-izatearen berri emateko, edo gure ondareaz jabetzeko.

Denon eskumena da, hortaz, **curriculumaren euskal dimentsioa** definitu, adostu, indarrean jarri eta aplikatzea, zein bere neurrian. Eta guk geure ardura-zatiari eutsi diogu.

Praktika onen bidetik bikaintasunerantz

Ebaluazioari eta praktika egokien bidetik, bikaintasunerantz jotzeko dugun egitasmoa da dugun azkena.

Aldiro egiten ditugun ikasleriaren lorpen eta hutsegiteen ikerketa, azterketa eta hausnarketen emaitzek, egin beharreko berrikuntza eta egokitzapenetarako argibideak eskaintzen dizkigute.

Horretarako, 2013an, ebaluazio diagnostikoek emandako emaitzen gaineko ikerketa bat burutzen ari gara. Hausnarketa prozesu horren ondorioak laster argitaratuko dira.

Hortik aurrera ikastetxeek euren hobekuntza planak diseinatuko dituzte, Berritzeguneen gidaritzapean. Horretarako oso kontuan izango dituzte. Horretarako oso kontuan izango dituzte 2011tik hona, ISEI-IVEIk UPV/EHUko Luis Lizasoain irakasleak zuzentzen duen ikerketa taldearekin batera burutu duen ikerketaren behin-behineko emaitzak, hurrengo hilabeteotan luze-zabal gizarteratu eta eztabaidatze bidean izango ditugunak. Hain zuzen ere, ikerketa horretan aztertu dira 2009ko eta 2010eko Ebaluazio Diagnostikoetan eraginkorrenak izan diren ikastetxeen, hau da, euren antzekoak diren ikastetxeenak baino emaitza hobekak lortu dituzten ikastetxeen praktika egokiak 14 dimentsio ala jardun lerro desberdinetan, hala nola:

- 1. Proiektuen, planen eta prestakuntzaren kudeaketa*
- 2. Metodologia eta irakaskuntza materialak*
- 3. Aniztasunaren trataera*
- 4. Ikaslearen jarraipena, banan-banako atentzioa, orientazioa eta tutoretza*
- 5. Ikaslearen ebaluazioa*
- 6. Denboraren kudeaketa*
- 7. Aitzindaritza edo lidergoa eta zuzendaritza taldeak*
- 8. Kudeaketa eta antolaketa ereduak*
- 9. Koordinazioa*
- 10. Ikastetxearekiko atxikimendua*
- 11. Irakasleen, ikastetxearen beraren eta programen ebaluazioa eta Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera*
- 12. Ikastetxeko giroa eta bizikidetzak*
- 13. Ikastetxearen irudia, azpiegiturak eta baliabideak*
- 14. Familia, gizartea eta giza kapitala*

Gainera, 2013ko Ebaluazio Diagnostikoak badu oso kontuan izan beharreko dimentsio edo ekarpen berri bat ere. Lehen aldiz, ahalbidetuko du ikasle talde beraren garapenari buruzko denboran zeharreko azterketa longitudinala egitea. Izan ere, 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan Lehen Hezkuntzaren 4. mailan ziren ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 2. mailan izango direnez aurtengo Ebaluazio Diagnostikoan oinarrizko hainbat gaitasunetan (euskara, gaztelania, matematika eta zientziak) nolako garapena izan duten ebaluatu ahal izango dugu.

Funtsezkoa da, beraz, ikasleen eskubideen berme-mailaren diagnosiak egitea eta eskaintzen dugun irakaskuntzaren ebaluazioa egitea, hori baita ondorengo hobekuntza diseinatzeko hasierako urratsa. Ezin dut aipatu barik utzi, azkenez, kalitate prozesuetan murgilduta dauden ikastetxeen esperientzia eredugarriak.

4. Irakasleen prestakuntzari begira, zein eredu bultzatuko du Hezkuntza-administrazioak? Zein izango da Languntza Zerbitzuon eginkizuna eredu horretan?

Begoña Garamendi Ibarra
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria

Zuetariko askok egindako galdera honi, saiatuko naiz erantzuten. Gure asmoa da orain arte izan dugun prestakuntza ereduaz eztabaidatu eta zalantzan jartzea baita. Horretarako hiru norabideetan jardungo dugu:

- Lehenik, ikerketetatik eratorritako emaitzetan oinarritutako ekarpen teorikoak hartuko ditugu aintzat. Bai hementxe bertan, gure erkidegoan, garatutako ikerketak, eta bai beste erkidegoetako edota nazioarteko ekarpenak ere .
- Bigarrenik, orain arte egindako ibilbidea aztertu behar dugu.
- Azkenik, ekainetik aurrera lan batzordea antolatu nahi dugu, non erakunde, eragile eta hezkuntza-administrazio kide ezberdinek parte hartuko duten, gai honi erantzun egokia emateko:

Hona hemen azterketa-hausnarketaren ildo batzuk:

- Eguneroko errealitatetik abiatuko gara.
- Lan-talde eta lan-sareen arteko elkarlana bideratuko dugu.
- Egiten dugunaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa egingo dugu.
- Egiten dugunaren gaineko teorizazioa bultzatuko dugu.
- Eta eguneroko gelako jardunari eta hobekuntzari zuzenki lotuko gaitzaizkie.

5. Hezkuntza zerbitzuen aldaketarik aurreikusten al du Hezkuntza Sailak, langileriaren perfilari edo dimentsioari dagokionez?

Olatz Garamendi Landa
Administración eta Zerbitzuen Sailburuordea

Argi utzi nahi dut, Sailburuak Legebiltzarreko agerraldian adierazitakoari jarraituz, Sailak langile-gastuei eutsi egin diela, eta, ondorioz, hezkuntza-zerbitzuetako langile kualifikatuei ere eutsi egingo diela era berean.

Guk fokea, itxaropena eta konfiantza, pertsonengan jarria dugu. Esan bezala, ikaslea da hezkuntzaren ardatza edo helburu nagusia. Euskal hezkuntzak egindako bidea goraiatzeko modukoa da. Demokrazian bizi izan garen hiru hamarkadetan barrena, besteak beste, euskal hezkuntza elebiduna garatu da, eta bai eleanitza ere; euskal ikasleek eskuratutako emaitzak Europako herrialdeetako ikasleek batez beste eskuratutakoekin parean edo gorago daude. Gure ikasleriak lortutako emaitzek zerikusi zuzena dute, beraz, hezkuntza-komunitateetako ahalegin eta bitartekoekin, eta horretan zuek funtsezko zeregina bete duzue.

Hala ere, asko dago egiteko eta hobetzeko. Oro har, aukera berdintasuna bermatzen jarraitu behar da, aldi berean bikaintasunerantz urrats sendoak eginez. Horretan ere, bitartekari-lan, zubi-lan guztiz funtsezkoa egiten ari zarete eta egingo duzue aurrerantzean ere.

Hezkuntzaren arloko inbertsioa egin beharreko inbertsiorik onena da, pertsonen zerbitzura, herritarren zerbitzura baita. Nolanahi ere, horretarako, irakasle lanbidearen ospea eta izen ona bultzatu behar ditugu, eta horretan hemen zaudeten Zerbitzuetakook ezinbesteko bidaideak zarete, bai irakasle lanbidearen eta irakaslearen aldeko ekintzak bideratzerakoan, irakasleen garapen pertsonala eta profesionala bultzatzerakoan, edota esperientziak eta jardunbide egokien elkartrukea ahalbidetzerakoan.

Ikastetxeetako zuzendaritzak indartzeko lanetan ere, zeresanik ez, zuen laguntza ezinbestekoa da, formazioa ikastetxeen beharrezanetara moldatzerakoan, eta ikastetxearen eta hezkuntza administrazioaren arteko harremanak erraztu eta areagotzerakoan.

Irakasleen garapen pertsonala eta profesionalari zuzenki lotuta dagoen ikastetxeen autonomia maila areagotzeko, bestalde, ikastetxe bakoitza hezkuntza-erkidego bihurtu gura dugu. Horretarako, ikastetxeak bere hezkuntza-erkidegoari egoki erantzun diezaiokeen organizazioa izan behar du, zeregin desberdinak lantzeko kapaz dena eta gizarteko aldaketei eta erronkei etengabe egokitzen dakiena. Geuri dagokigu, beraz, hezkuntza-erkidegoen ezaugarrietara egokitzea eta, lehenik, irakasleen beharrei ahalik eta ondoen entzutea eta, ondoren, adostasunetan oinarriturik, egoki erantzutea.

6. Sailaren Aurrekontuak zenbateko eragina izango du funtsezkoak diren azpiegituren hornikuntzan?

Olatz Garamendi Landa
Administración eta Zerbitzuen Sailburuordea

En este sentido, entendemos que propiamente más allá de referirnos a recortes, hemos de centrarnos en la existencia de una bajada en los ingresos, que nos obliga a priorizar el buen destino de los mismos.

Como apunte señalar que el presupuesto del Departamento supone un 28,2% de los Presupuestos Generales de la C.A.P.V., manteniéndose todos aquellos aspectos esenciales para el buen desempeño del servicio público de educación y haciendo especial hincapié en las personas.

Concretamente, y en lo que a infraestructuras se refiere, tal y como señaló la Consejera en la comparecencia presupuestaria, se prevén en su totalidad las obras a finalizar el 2013 y se reperiodifica el resto.

No obstante, es importante subrayar que el presente ejercicio hemos de diseñar un nuevo Plan de Infraestructuras 2013-2016. Así, estamos realizando un diagnóstico del anterior Plan de Infraestructuras 2009-2012 a los efectos de definir su grado de cumplimiento, así como de priorizar las actuaciones para los próximos ejercicios.

Azpiegitura eta informatikako ekipamenduari dagokionez, aurten ekipamendu berriez hornitu beharrea, gure apustua da dauden ikasleen zerbitzura jartzea; eskoletan gaur egun dauden baliabideen eta ekipamenduen erabilera areagotzea; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu osoan zehar modu eraginkorren teknologiak erabiltzea, hau da, teknologiak erabiliz irakastea, Ikasteko eta Jakiteko Teknologiak (IJT) izan daitezzen; eta material digitalak sortzea, euskaraz batez ere.

Hezkuntzaren digitalizazioaz plangintza global eta zeharkakoa prestatzen ari gara, alor didaktikoan zein kudeaketa-alorrean. Sare-hezkuntzaren paradigma lantzeko asmoa daukagu.

Era berean, uste dugu gure hezkuntza-erkidegoaren bilakaerak (familiena, ikasleena eta irakasleena, besteak beste) eta eszenatoki teknologiko berriek (netbook-ak fabrikatzeri utzi zaio, smartphone eta tablet-en bat bateko zabalkundea gertatu da,...), hezkuntzaren digitalizazioaren norabidearen egokitzapen sakona eskatzen dute, hots:

- *Ekipamenduei garrantzia erlatiboa emateko*
- *Ikastetxe osoa eta etxeak kontuan izateko*
- *Egun ditugun ekipamenduen erabilera –librea eta borondatezkoa ere-, ikaskuntzarako izan dadin.*

- *Metodologia pedagogikoak berriztatzeko, inguru ireki eta eszenatoki anitzetan, dispositibo pertsonalak (tabletak,...), eta nonahi erabiltzeko modukoekin.*
- *Eduki digitalak areagotzeko, kurrikulumarekin lotuta, batez ere euskaraz.*
- *Eskola eta gizartearen arteko, ikasleen, familien eta irakasleen etengabeko konexioa sustatzeko, sare hibridoak erabiliz (aurrez aurrekoak zein birtualak), hezkuntza-gaiei buruzko elkarrizketak areagotuz. dar una importancia relativa a los equipamientos.*

7. Nola sustatuko du hezkuntza-administrazioak Ikuskaritza, Berritzeguneak, ISEI-IVEI, eta gainontzeko zerbitzuen arteko koordinazioa??


Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntzako Sailburuordea

Ikastetxe bakoitzak lantzen duen Hobekuntza Plana izango da ikastetxearekin batera lan egiten duten gainontzeko erakundeen koordinaziorako gunea.

ISEI-IVEIk, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin, Berritzeguneekin eta Ikuskaritzarekin elkarlanean, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren eta hezkuntza bikaintasunaren kultura hedatzen jarraituko du.

ISEI-IVEI arduratuko da ebaluazio-diagnostikoaren diseinua, antolamendua, galderen bilketa eta zuzenketaz, orain arte bezala.

Ikuskaritza, Berritzegune eta ikastetxeetako kideek lehenik, emaitzak aztertuko dituzte, ondoren, emaitzak hezkuntza-komunitatera nola zabalduko diren, erabakiko dute. Horixe izan daiteke egokia hobekuntza planaren lerro nagusiak hiru zerbitzuen artean zehazteko une egokia. Ikuskaritza eta ISEI-IVEIk ikastetxeari lagunduko diote, hobekuntza planaren adierazleak zehazten.



Bide honen bukaeran, ikastetxeetako hobekuntza planek ikasleen gaitasunetan izan duten eraginkortasun-maila zenbaterainokoa izan den jakiteko gai izango gara.

Ikuskaritzakook hobekuntza planari egiten dizkion ekarpenak, besteak beste, honako hauek dira:

- *Era eraginkorrean laguntzea, ikasleek duten Hezkuntza-eskubidea bermatzeko.*
- *Era profesional eta etikoan jardutea, dela ikastetxeetan izandako esku-hartzeetan, dela Hezkuntza Administrazioarekiko, dela ikastetxe eta Administrazioaren arteko harremanetan.*
- *Ikastetxeen eta ikastetxeetako antolaketaren etengabeko hobekuntzan laguntza ematea.*

Eta Berritzeguneari? Hausnarketa bultzatu ondoren sortzen diren ziurgabetasun, zalantza edo eztabaidei ateak irekitzeko prest egotea, dagokio Berritzeguneari. Nola? hezkuntza-komunitateen errealitatek abiatu, jarrera irekia izan, besteen hitza entzun eta interbentzioa moldatzeari ekinez... Bestela esanda, ikastetxeekin egiten den elkarlanean laguntza edota aholkularitza prozesuan ondotik laguntzen duen kidearen posiziotik.

Erreferente teorikoak, elkarlanetik eraikitzen doanaren arabera aurkezten joatea. Hau da, praktikatik aurrera egin ahala, eta beharrianak zein aurre-ezagutzak ahaztu gabe, unean-unean horretarako aukera dagoela ikusten denean, orduan, erreferentzia teorikoekin hornitzea

8. Laguntza Zerbitzuok ikastetxeetako hezkuntza-komunitate eta hezkuntza-administrazioaren arteko zubilanak egiten ditugula kontuan hartuta, zein da, Sailaren ustez, ikastetxeei eta irakasleei oro har, luzatu behar diegun mezua, krisialdi ekonomiko honetan?

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua

Sintesiaren unea heldu da. Hainbat datu kualitatibo eta kuantitatibo azaldu genitzake eskola-elkartea eratzen dugunok, sartuak gauden abentura miragarriaren garrantziari buruz. Hala ere, ikuspuntu humanistikoago bat emango dugu, gure begien aurrean hedatzen den panorama zoragarria nabarmentzeko.

Gogoko izan dugu bilera hau, eta nahita elkartu gara gaur hemen euskal hezkuntza sistemako zerbitzu erabakigarriak osatzen ditugunok. Badakigu ez dagoela gizarte-sare sendoagorik hezkuntza baino; izan ere, sare honetatik pasatzen da lagun oro bizitzako lehen urte erabakigarrietan zehar. Bertan garatzen da nortasun pertsonal eta kolektiboaren esentzia. Milaka ikaslek eratzen dute sare hori, milaka familiarekin eta milaka irakaslerekin batera. Hemen batu garen hezitzaileok, bestalde, eratzen dugu bigarren sare bat, profesionaltasun, bokazio eta berrikuntzaz betea.

Benetan deritzagu aurrez aurre elkar ikusi behar genuela, elkarren indarra hobeki sentitu behar genuela, zuen jakintza eta esperientzia laudagarriak baitira. Hamarkadetan jardun dugu elkarrekin batera irakaskuntzan, ikasle eta familien zerbitzura. Jakina da, baita, pertsona bakoitza dela altxor; beraz, denok batera, geroan sinesteko eta etorkizuna sortzeko, funtsezko eragileak gara.

Hay quienes dicen que falta liderazgo educativo, pero ignoran que el liderazgo se ejerce en cada aula, en cada centro, en cada una de las miles de actuaciones educativas que diariamente tienen lugar en nuestra sociedad. El concepto actual de liderazgo ya no se entiende como una "cualidad" de un "equipo", sino como una actividad del conjunto de la organización. Y la educación vasca siempre ha estado guiada, liderada y conectada por el ejemplo de sus agentes más determinantes y decisivos, los más cercanos a la realidad del aula, hoy entendida de modo muy abierto y expandido, en la era digital en la que vivimos.

Si sumamos nuestras capacidades y voluntades, somos capaces de afrontar los retos trascendentales que vivimos cada día. Nuestra labor gratificante es construir, construir día a día algo más que catedrales: ayudamos a desplegar sus alas a los seres humanos cuyos progenitores nos confían.

Elkarrekin ikasteko eta gure gizartearen erronkei erantzuteko gai gara. Izan ere, gizarteak geure ardurapean uzten du maiteen duen ondasuna: seme-alabak, gure ikasleak.

[Amaitzeko, gaurko ekitaldi hau posible egin duzuen guztioi gure eskerrik zintzoenak. Aipamen berezia merezi duzue galderak eta ekarpenak egin dizkiguzuenok, ekarpen horien inguruan antolatu baitugu gaurko saio hau. Zuen kezka eta ekarpenak eta gure asmo eta egitasmoak bat egingo dutelako itxaropenean, agur eta... Eskerrik asko!]

